



begoñazpi ikastola

2021-2022 ikasturteko
Hezkuntza Ez-Formaleko
Programa



Arte-programa



Musika

Helburuak

Danak dogu musika adierazteko, sentitzeko eta entzuteko gaitasuna, hau da, maila desbardinetan bada be, garatu eta sustatu behar dan musikaltasuna. Lehen aldiz umea inguruagaz hartu-emonetan jartzen daben entzumen esperientziei ekiteko, ikasleen garapen integralari aukera emonez, hainbat metodo erabiltzen dabezan musika-eskolak emongo dira.

MAX ETA MIA METODOA

Programa honen helburu nagusia, umearen garapenez gain, musika potentzialaren hedapena be bada. Hau, umeak bizi davan momentua kontuan izanik, eboluzio-aldietan antolatutako metodoa da.

COMBO

Musika moderno edota orkestran antolaturiko taldeak dira. Honeek, ikasitakoa jolas zein modu dibertigarrian jarriko dabe martxan.

Informazio erabilgarria

ARAUAK

- Ikasleei emoten jaken materiala, hurrengo hilean kobratuko da.
- Prezioan ez da ez materialik ez musika-tresnarik sartuko.

LEHEN HEZKUNTZA ETA DBH

- Musika-tresna jotzen aurrera egin eta hobetzeko, etxean astero erreparatu eta ikasi beharko da.
- Garrantzitsua da musika-tresna ekartzea baita klase-orduak behar dan moduan aprobetxatu eta honeei etekina ataratea be.
- Egun eta ordu aldaketak egon daitezke.
- Beharrezkoa izanez gero, mailakatze-frogak egingo dira.

Musika-Tresnak

Musika-tresnak eta liburuak ordaindu egin beharko dira.

Lehen Hezkuntzan landuko diran musika-tresnak: zeharkako txirula, klarineta, saxofoia, txistua, pianoa, biolina, biolontxelo, gitarra klasikoa, akordeoia, perkusioa, tronboia, tuba eta tronpeta.

DBHn landuko diran musika-tresnak: bateria, gitarra klasikoa/elektrikoa, baxua, txistu, trikitixa, ukelelea, biolina, kantua, teklatura, baxu elektrikoa, audio and home studio eta DJ (gitxiengo kopurua beharko da).

**Ikastolatik kanpo musika-tresna ikasten eta maila egokia daben ikasleek, combo ikasteko matrikula egin ahalko dabe. Musika-tresna eta combo, aparte kobratuko dira. Ikasleek, combo egin nahi bada-be musika-tresna egin beharko dabe. Musika-tresna bakarrik be ikasi ahal da.*

HAUR HEZKUNTZA

4 - 5 urte
MAX ETA MIA
METODOA

LEHEN HEZKUNTZA

1. maila MAX ETA MIA METODOA	2. maila MAX ETA MIA METODOA
+	+
ABESBATZA	BIRAKARIAK

3. - 4 maila
HIZKUNTZA
MUSIKALA
+
MUSIKA-
TRESNA

5. - 6. maila

AUKERA 1*
HIZKUNTZA
MUSIKALA
+
MUSIKA-TRESNA
(ordu bat)
+
ABESBATZA
+
MUSIKA-TRESNA
TALDEA

AUKERA 2*
HIZKUNTZA
MUSIKALA
+
MUSIKA-
TRESNA
(ordu erdi edo
ordu bat)

DBH

1. - 2. - 3. - 4. maila
MUSIKA MODERNOA
MUSIKA-TRESNA
+
COMBOA

*Aukera honetan izena emoteko, LH 3. eta 4. mailan Hezkuntza Ez-Formaleko klaseak emonda egon behar dira.